



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

2023an, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko herrietako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen arloetan kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak emateko deialdia.

1. Oinarri arautzaileak.

Bi mila eta hamaseiko ekainaren hogeita hiruko osoko bilkuran, udalbatzak erabaki zuen onartzea Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoko herrietako merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen arloetan kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz jartzeagatik diru-laguntzak emateko oinarri arautzaileak (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 157/2016 alean argitaratu zen, abuztuaren 18an), eta, bi mila eta hamazazpiko ekainaren hamabostean aldatzea erabaki zen (Bizkaiko Aldizkari Ofizialaren 155/2017 alean argitaratu zen, abuztuaren 16an).

Hala oinarriak eta deialdia, nola eskabide-eredua eta gainerako eranskinak Amankomunazgoaren webgunean daude ikusgai: www.dma.eus

Horrez gain, informazioa, eskabide-eredua eta eranskinak Euskara Zerbitzuan daude eskuragai; hau da, Durangoko Elkartegian, 203 moduluan (Landako 4, Durango).

Jendaurreko zerbitzua astelehenetik ostiralera eskaintzen da, 9:00etatik 13:00etara.

2. Diru-laguntzen helburua eta xedea.

Diru-laguntzen helburua izango da, merkataritzan, ostalaritzan eta zerbitzuetan diharduten eta enpresa txikitzat jotzen diren establezimenduen kanpoko errotuluak eta webguneak deialdiari dagokion urte naturalean euskaraz jartzea, Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren udalerrietan; betiere, oinarri arautzaileetan jasotako baldintzak beteta.

3. Gehieneko zenbatekoa eta aurrekontu-kreditua.

Deialdiaren zenbatekoa, guztira, hiru mila eurokoa da -3.000,00 €-, eta 3350.481.02 aurrekontu-sailari egokituko zaio; hau da, "Euskararen sustapena: arlo sozioekonomikoan errotuluak eta webguneak euskaraz jartzeko diru-laguntzak", 2023ko ekitaldirako.

4. Emakidaren erregimena.

Oinarri arautzaileetan ezarritako baldintzak bete dituzten eskatzaile guztiei emango zaizkie diru-laguntzak, eta zenbatekoa 8. puntuan jaso denaren arabera izango da.

Aitzitik, diru-laguntza hauei esleitutako kreditua diru-laguntzak emateko bestekoa ez bada, eskari guztien artean proportzionalki hainbanatuko da.

5. Diru-laguntzak eskatzeko baldintzak eta egiaztatze erak.

Diru-laguntzen onura jaso ahal izango dute baldintza hauek betetzen dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoak:

a) Merkataritzako, ostalaritzako edo zerbitzuetako establezimendua izatea eta jarduera enpresa txikitzat jotakoa izatea; hau da, 50 langile baino gehiago ez izatea.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

b) Establezimendua Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzua osatzen duten udalerrietakoren batean egotea: Abadiño, Atxondo, Berriz, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria edo Zaldibarren.

c) Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluko eskakizunak betetzea.

d) Administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ez jaso izana sexua dela-eta inor baztertzegatik edo, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritako diru-laguntzetan aurkezteko debekurik ez izatea.

e) Diruz lagun daitekeen jarduera gauzatzea, eta oinarri arautzaileen seigarren puntuan zehazten diren dokumentuak aurkeztea.

6. Diru-laguntzaren emakida izapidetu eta ebazteko eskumena duten organoak.

Kudeaketa-zerbitzuari dagokio prozedura izapidetzea.

Diru-laguntzak emateko onespena eta ebazpena egiteko organo eskuduna presidentea edo hark eskuordetutako organoa izango da, Antolakuntza Informazio Batzordeak proposatuta, eta zerbitzu teknikoak dagokion txostena egin ondoren.

7. Eskabideak aurkezteko epea.

Laburpen hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita 2023eko urriaren 16era arte aurkeztu ahal izango dira eskabideak. Eskabideek presidenteari zuzenduta egon behar dute, eta onuradunak izenpetu behar ditu, edo kasu bada, haren legezko ordezkariak. Horrekin batera, dagokion dokumentazioa ere aurkeztu beharko da.

8. Eskabideak aurkezteko era.

Diru-laguntzen eskabideak eredu ofizialean arabera izango dira (I. eranskina), eta bide telematikoen bidez aurkeztu beharko dira egoitza elektronikoa:

<https://www.dma.eus/eu-ES/Izapideak/Orriak/procedimiento-detalle.aspx?id=1e564add-d1ac-e211-b9d8-00237d32158c>

edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16. artikuluan adierazitako edozein bide erabiliz.

Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiri eta informazioak

Diru-laguntza eskabidea guztiz beteta eta sinatuta egon beharko da, eta, horrekin batera, agiri osagarri hauek aurkeztu beharko dira:

1. Pertsona fisikoak: autonomoek nahitaez aurkeztu behar dute NAN edo legez haren ordezkaria den agiria.

2. Pertsona juridikoak:

- Entitatea eratzeko eskritura eta, kasu bada, estatutuen edo eraketa-aktaren moldaketena, jardueraren araubidea jasota. Dagokion Erregistro Publikoan inskribatuta egon beharko da, pertsona juridiko motaren arabera.



- Erakundearen IFKren kopia.
- Entitatearen ordezkariaren ahalorde eskritura edo izendapenarena, eta ordezkariaren NAN.
- Langile kopuruari buruzko erantzukizunpeko aitortpena.

3. Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituela dioten ziurtagiriak.

4. Legezko ordezkariaren erantzukizunpeko aitortpena, diru-laguntzak eskuratzetik ezgaituta ez dagoela esanez (II. Eranskina).

5. Erantzukizunpeko aitortpena, xede berbererako beste erakunde publiko edo pribatu batzuei eskatutako edo haiengandik jasotako diru-laguntzak adieraziz. (III. Eranskina)

6. Titulartasuneko kontua, banku- erakundeak behar bezala ziurtatuta. (IV. Eranskina)

7. Faktura originala eta ordaindu dela ziurtatzen duten agiriak. Faktura horrek deialdiari dagokion urte naturalekoa izan beharko du, eta legez eskatzen diren betekizunak bete beharko ditu.

8. Elementua jarrita dagoela frogatzen duen argazkia. Webguneen kasuan, helbide elektronikoa jakinarazi beharko da.

9. Diru-laguntzen zenbatekoa.

1. Diru-laguntzen hasierako esleipena honela egingo da:

- Kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz:

Kanpoko errotulazioa edo webguneak euskara hutsez jartzeagatik gastuaren % 50eko diru-laguntza emango da. Gehienez ere, bostehun euro jaso ahal izango dira.

- Kanpoko errotuluak eta webguneak euskaraz eta gaztelaniaz:

Kanpoko errotulazioa edo webguneak euskaraz eta gaztelaniaz jartzeagatik gastuaren % 25eko diru-laguntza emango da; betiere, euskara lehenesten bada. Gehienez ere, berrehun eta berrogeita hamar euro jaso ahal izango dira. Errotuluetan, euskara lehenesteko letra tamaina edota testuaren kokapena baliatuko dira eta, webguneen kasuan, orria euskaraz irekiko da.

2. Aitzitik, diru-laguntza hauei esleitutako kreditua diru-laguntzak emateko bestekoa ez bada, eskari guztien artean proportzionalki hainbanatuko da.

3. Diru-laguntzaren zenbatekoak, berak bakarrik zein beste administrazio publiko zein erakunde publiko edo pribatu batzuen diru-laguntza edo laguntzekin batera, ezin izango du inola ere onuradunak egingo duen jardueraren kostu osoa gainditu. Diru-sarrera eta gastuen justifikazioa aztertutakoan gehiegizko finantziarioa egon dela ikusi bada, gehiegizko diru-sarreraren zenbatekoa kenduko zaio diru-laguntzari.



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

10. Ebazteko eta jakinarazteko epea.

Ebazpena egin eta jakinarazteko epea, gehienez, sei hilekoa izango da, deialdia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Epe hori amaitu eta ebazpena jakinarazi ez bada, interesdunek diru-laguntza emateko eskabidea administrazioaren isiltasunaren bitartez ezetsitzat jo ahal izango dute.

11. Jakinarazteko bideak.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan ezarritakoa oinarri hartuta jakinaraziko zaie interesdunei emakidaren ebazpena. Jakinarazpen edo argitalpen hori gauzatzeko aipatutako Legearen 43. artikuluan agertzen diren xedapenak bete beharko dira.

12. Errekurtsoak.

Administrazio bideari amaiera ematen dion ebazpenaren aurka, interesdunek aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote presidenteari, hilabeteko epean, ebazpena egiten den egunetik aurrera zenbatzen hasita; edo, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango dute administrazioarekiko auzien Bilboko epaitegian, bi hilabeteko epean. Dena dela, interesdunek egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez dezakete.

Durangon, 2023ko ekainaren 8an.

Jarduneko Presidentea, Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia.